


# BALIO PROPOSAMENA

Proiektu honekin, gaur egun gizartean gazteek eta teknologia berrietan interesa duten guztiek dituzten arazoak konpontzen saiatuko gara. Teknologia berriak erabiltzeko erraztasunak eman nahiko genituzke. Bateriarik gabe geldituz gero eta entxuferik izan ez gero wifi bidez kargatzeko aukera ematen dizu gure produktuak.

Produktua erabiltzea eta eskuratzea oso erraza da eta edonork lor dezake horrelako kargagailu bat. Diseinu mota asko daude eta kargagailua pertsonalizatzeko aukera ere badago. Ez dute energia asko kontsumitzen. Duten kalitateari dagokionez oso kalitate onekoak eta gainera oso merkeak dira.



Gaur egungo nerabeen zaletasunik handiena mugikorrak dira, eta horrek horrela jarraitzeko aurrerapauso bat eman nahi izan dugu. Denok nahi dugu eta behar dugu mugikorraren bateriak gehiago irautea, eta gure produktuak arazo horri konponbidea ematen dio. Ez dugu uste beste taldeak teknologia berritzaileetan zentratuko direnik, teknologia berriak garrantzitsuenak direla uste dugu eta!